

INFORMAZIO-OHARRA: IT TXARTELA

2014-15 EPEn, IT Txartela informatikako ezagutza-egiaztagiriekin lotuta jasotako kontsultak ikusita, Osakidetzak hurrengo jakinarazten du:

1.- Deialdiaren oinarrien arabera baliokidetzat hartutako IT Txartelaren modulu bakoitzaren bertsioak daudenean (XP/2003/2007/2010), dagokion eskakizuna edo meritua bete dela kontsideratzeko aipatutako bertsioen bat egiaztatzearekin nahikoa izango da.

2.- Modulu beraren oinarrizko bertsioa eta bertsio aurreratua egiaztatzen badira, azkena bakarrik baloratuko da. Horrenbestez, bertsio aurreratua egiaztatuz gero, oinarrizko bertsioa lortzea ez da beharrezkoa izango.

3.- Lehiaketa-fasearen Prestakuntza atalaren barruan, Informatika Ezagutzen azpiatalean lortu ahalko den gehieneko puntuazioa 2 puntu izango dira.

4.- Meritu edo eskakizun gisa hartzeko, IT Txartela lortzeko azkeneko eguna hautaketa-prozesuan izena emateko azkeneko eguna izango da; hau da, 2015eko uztailaren 3a.

5.- Hautaketa-prozesuan izena ematerakoan, lortutako IT Txartelaren egiaztapenari dagokion dokumentazioa ez da beharrezkoa izango.